



MUSIKA

Benedetti Michelangeli: pianoaren perfekzionismoa

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Zalantzarik gabe, 2020a 'Beethovenen urtea' da, haren jaiotzaren 250. urteurrena ospatzen baita. Kontzertu-zikloez, musika sinfonikoaz, pianorako musikaz gozatu ahal izango dugu -egoerak ahalbidetzen duenean noski-. Benetan ospatu beharreko efermeride bat da. Baina ezin ditugu ahaztu aurtengo beste urteurren batzuk, agian ez hain distiratsuak, edo ez hain ezagunak, baina horiei buruz hitz egin behar dugu.

Joan den mendeko piano-jotzailerik bikainenetako baten jaiotzaren 100. urteurrena betetzen da aurten, Arturo Benedetti Michelangelirena hain zuzen ere. Italiako Brescian jaioa, perfekzionismo handiko artista zen denean, interpretazioan, instrumentuetan, artoetan, afinazioan eta musika ekintza inguratzen duen guztian. Gauzak horrela, artista zaila, oso zaila bihurtu zen, baina sublimea, hori bai.

II. Mundu Gerra hasi zenean, Benedettik Genevako Nazioarteko Jaialdiko lehen saria irabazi zuen 1939an, baina arteak xurgatutako musikaria izate-tik urrun, nortasun aktibo eta gogotsua zuen: gerra garaian osasun-langilea izan zen, pilotua ere bai, eta ondoren, Italiako erresistentziako kidea. Gainera, Ferrari auto probatzailea eta alpinista ere izan zen. Gerra amaitu ondoren, me-rezitako ospea lortu zuen kontzertista bezala, bere osasun delikatuak bira asko egitea eragotzi zion arren.



Bere perfekzionismoa gaixotasun baten antzeko zerbait ere bihurtu zen. Pianoarekin eta afinatzailearekin bidaiatzen zuen beti, kontzertuak bertan behera uzten zituen maiztasun handiz, eta sarritan emanaldi baten erdian jai-kitzen zen, pianoa ez baitzen entzuten berari gustatzen zitzaion bezala.

Baina teknikoki pianistarik perfektuenetakotzat jo dezakegu, kristala bezalako soinu gardena lortzen zuen. Ka-

litate paregabeko disko sorta geratu da etorkizunerako. Azpimarratuko nituzke Beethovenen piano eta orkestrarako kontzertuak, bereziki *Enperadorea*, edota Schumannen *Inauteriak* eta *Vienako Inauteriak*. Grabazio guztiak antologi-koak dira, bereziak. Horiek entzuteak gaur egun aurkitzeko zaila den maila batera eramaten gaitu. Konfinamendu egun hauetan beharrezko bakea aurkitzeko oso aproposak. ●